


Gira siempre con la  
misma cara mirando hacia  
el Sol.



Gira siempre con la misma cara  
mirando hacia el Sol.

Betiere aurpegi bera Eguzkira  
begira duela egiten du bira.



- El tren llegó **con** casi una hora de retraso.
- Estaba sentada **con** el abrigo sobre las piernas.
- Encontraron el cuerpo **con** las manos atadas a la espalda.
- Venía **con** los ojos cerrados.
- Apareció **con** una mascara en la cara.
- Encontraron **con** vida al testigo.
- El hijo llegó **con** un ajedrez bajo el brazo.
- Estaba sentado **con** los pies apoyados en la mesa.
- Caminaba despacio, **con** las manos en la cintura.
- Vino **con** un regalo en la mano.
- Jugó todo el partido **con** un dedo del pie roto.
- **Con** el catedrático de director, acabaré la tesis en dos años.
- **Con** todas las persianas bajadas se aislará mejor del ruido.
- Le recibieron **con** los brazos abiertos.





Adibide horietako eta antzeko "con" preposiziodun esapideen analogiaz, honelako egiturak irakurri eta entzun daitezke euskaraz:

- \*Oineko hatz batekin apurtuta jokatu zuen.
- \*Maleta batekin eskuan etorri zen.
- \*Diruarekin poltsikoan joan zen zinemara.



Halako esapideek, oro har, **NOLA** galderari erantzuten diote, eta ez dira **NOREKIN** kasuaren bidez adierazi behar euskaraz.

Jugó **con un dedo del pie roto.**

**\*Oineko hatz batekin apurtuta** jokatu zuen.

Oineko hatz bat apurtua (zuelarik) jokatu zuen.



- El tren llegó **con casi una hora de retraso**.
  - Ia ordubete atzeraturik heldu zen trena.
- Encontraron el cuerpo **con las manos atadas a la espalda**.
  - Eskuak bizkarrean lotuta aurkitu zuten gorpua.
  - Eskuak bizkarrean lotuta zeuzkala(rik) aurkitu zuten gorpua.
- Venía **con los ojos cerrados**.
  - Begiak itxita zetorren.
- Estaba sentado **con los pies apoyados en la mesa**.
  - Eserita zegoen, oinak mahai gainean jarrita.
  - Eserita zegoen, oinak mahai gainean jarrita zeuzkala(rik).



- Encontraron **con vida al testigo**.
  - Bizirik aurkitu zuten lekukoa.
- Jugó todo el partido **con un dedo del pie roto**.
  - Oineko hatz bat apurtuta jokatu zuen partida osoa.
- **Con todas las persianas bajadas** se aislará mejor del ruido.
  - Sareta guztiak beheratuta, hobeki babestuko da zaratatik.
  - Sareta guztiak beheratuz gero, hobeki babestuko da zaratatik.
  - Sareta guztiak beheratuta dauzkala(rik), hobeki babestuko da zaratatik.



- Estaba sentada, **con el abrigo sobre las piernas.**
  - Eserita zegoen, berokia hanken gainean zuela(rik).
- Apareció **con una mascara en la cara.**
  - Mozorro bat aurpegian zuela(rik) agertu zen.
- El hijo llegó **con un ajedrez bajo el brazo.**
  - Xake-taula bat besapean zekarrela(rik) agertu zen semea.
- Le recibieron **con los brazos abiertos** en aquella casa.
  - Besoak zabalik hartu zuten etxe hartan.



- Caminaba despacio, **con las manos en la cintura.**
  - Astiro zebilen, **eskuak gerrian.**
  - Astiro zebilen, **eskuak gerrian jarrita.**
  - Astiro zebilen, **eskuak gerrian zituela(rik).**
- **Con el catedrático de director,** acabaré la tesis en dos años.
  - **Katedraduna tesi-zuzendari dudala(rik),** bi urtean burutuko dut tesia.
  - **Katedraduna tesi-zuzendari izanik,** bi urtean burutuko dut tesia.
- Los chicos y chicas estaban en el andén de la estación, **con las mochilas a la espalda,** esperando al tren.
  - **Neska-mutilak geltokiko nasan zeuden, motxilak bizkarrean,** trena noiz helduko zain.